

HAUR MISIOLARIAK – 2022ko Urtarrilaren 16a
HAUR KATEKESIA
“Jesusekin Jerusalemera. Munduarentzako argi”

IKUSI

Ipini kandela handi bat mahaian. Piztu eta neska-mutiko bakoitzak zerbait esango du hari buruz: zer nolako forma duen, zertarako balio duen, ze kolore duen,...

Zer sentitzen dugun ukitzen dugunean, zertaz egina dagoen, nola pizten den, zer eragiten duen...

Katekistak neska-mutikoen ekarpen guztiak idatziko ditu:

Argia ematen du, beroa ematen du, distira egiten du, argitu egiten du, argiztatu...

Katekistak ideia batzuk sartuko ditu osatzeko:

Zer gertatzen da oinez gabiltzanean eta gauez egiten zaigunean?

Inoiz geratu al gara argirik gabe etxean? Zertan laguntzen du kandela baten argiak?

Zer beste gauzak eman diezagukete argia? Mugikorrak linterna dauka.

Autoek argiak dituzte errepidetik joateko eta talka ez egiteko...

Argia zein garrantzitsua den komentatuko da.

EPAITU

Irakurgaia, Mateo 5, 13-16: Egokitu hizkuntza haurren mailara.

Jesusek besteentzat argia garela esaten digu. Zer esan nahi du? Ze lotura dauka horrek kandelaren argiari buruz esan dugunarekin?

Irudiak jarri (ikus eranskina) eta neska-mutikoei galdetu. Zer adierazten digute marrazki hauek?

Nola izan gaitzke argi besteentzat?

-Haurrek irudiek adierazten dutena partekatuko dute, eta misio-balio batekin lotuko dira.

-Misiolariak ere badaramate Jesusen argia mundura, pertsonen eta herrien bitzita argitzen duen argia. Gu ere, haiek bezala, guztien aurrean, Jesusen argia distirarazteko deituak gaude.

EKIN

Azaldu diren eta komentatu diren irudietako bat aukeratzeko eskatuko diegu neska-mutikoei. Hura aukeratutakoan, besteentzako argia izateko konpromisoa hartuko dute, irudian agertzen den balioarekin.

Edo Haur Misiolarien Lehiaketan parte hartzeko gonbita egingo zaie, "Munduarentzat argia zara zu".

DEIALDIA:

2022ko Haur Misiolarien Jardunaldia dela eta, lehiaketa baterako deialdia egin dute Elizbarrutiko Misioek eta Haur Misiolarien Idazkaritzak "Jesusekin Jerusalemera. Munduarentzako argi! goiburupean: "Munduarentzat argia zara zu".

Neska-mutikoei, marrazki bat egingo dute beren ekintzen bidez gizartea eraldatzeko gai direla azaltzeko, eta besteentzako argi nola diren erakusteko.

ERANSKINA

ARGIA GARA. ZU MUNDUARENTZAKO ARGI ZARA!
NOLA IZAN NAITEKE ARGIA FAMILIARENTZAT, LAGUNENTZAT,
MUNDUARENTZAT?



Behar duenari lagunduz



Mundu hobeagoa eraikiz




Triste edo bakarrik dagoena animatuz



Besarkatuz, maitasuna emanez



Elkartasuna adieraziz



Elkarrekin lan eginez



Eskuzabaltasunez elkarbanatuz



Ingurumena babestuz



Bakearen eramale izanez